

GIG 39

ITZURUNGO KOBAZULOAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,88**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Itzurun hondartza hormatar gorrixka bereizgarri batek mugatzen du hego-mendebaldean; kolore hori Daniarreko kareharriei zor die, eta N120°E norabidean kokatuak, kareharri horiek definitzen dute itsaslabarraren frontea. Daniarreko kareharriak gogor samarrak dira, eta ondo jasaten dute itsasoaren oldarra; olatuak ipar-mendebaldetik sartzen dira eskuarki, eta 45° inguruko angelua osatuz zeharkatzen dute itsaslabarraren behealdea.

Arrokan dauden zartadura bertikaletan zehar higadurak ederki urratu ditu bideak, eta kobazulo ikusgarriak sortu ditu horman. Izan ere, zartadurak ahultasun-planoak dira arrokan, eta beraz, leku egoki-egokiak higadurak aurrera egiten jarrai dezan, bai sakonean bai zabalean; itzelezko barrunbeak sortu dira horrela, 8 metrokoak ere bai, SW norabidean garatuak. Gainera, barrunbe horiek oso forma bitxiak uzten dituzte agerian flyscharen geruzek osatzen duten *hostopil* moduko horretan.

Kobazulo guztien artean bat nabarmentzekotan, ekialdeen dagoena aipatu behar da, 10 metrotik gorako garapena duelako, batetik, eta bestetik, geruzen norabidearekiko paralelo gertatu delako higadura (SE norabidean, alegia).

Geoparkean elementu geologiko ezagunik baldin bada, Itzurungo kobazuloak ezbaierik gabe horietako bat dira, argazkitan hainbestetan ikusiak, oso baitira ikusgarriak, eta are ikusgarriagoak oraindik itsasoak horma gogor jotzen duenean, kobazuloek sifoi txikiak baitirudite horrelakoetan.

NOLA BERTARATU

Oinez, Zumaiako herrigunetik Itzurun hondartzara.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Itzurun hondartzako Daniarreko hormatzarraren ikuspegi panoramikoa.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 559654 m / Y= 4794362 m / Alt.= 0 m



Zartadura bertikal batean zehar garatutako kobazuloetako bat, gertutik ikusita.